



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko uztailaren 3a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Barañaingo festetan salatutako gertakariak, eta elkartasuna eta babesba adierazten baitizkie sexu-erasoen biktima diren emakume guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (3. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Barañaingo festetan salatutako gertakariak, eta elkartasuna eta babesa adierazten baitizkie sexu-erasoen biktima diren emakume guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2015eko uztailaren 3an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak zeharo gaitzesten ditu Barañaingo festetan salatutako gertakariak, eta elkartasuna eta babesa adierazten dizkie sexu-erasoen biktima diren emakume guztiei

2. Nafarroako Parlamentuak bere kezka adierazten du, bereziki jai-giroetan gertatzen diren jarrera eta jokabide matxistengatik, eta berrets egiten du bere konpromiso publikoa, gizarte patriarkal eta matxista bat sendotzen duten desberdintasun eta diskrimazio oro amaiarazteko. Halatan, onartezintzat jotzen du jaiak zigorgabetasun-esparru bihurtzea, non emakumeak laidotzeko jarrerak sustatzen ahal baitira.

3. Nafarroako Parlamentuak onartezintzat jotzen du jarrera matxista horiek oraindik ere gertatzen jarraitzea, eta adierazten du bere borondatea dela errotik desagerraraztea indarkeria sexista oro, zeina emakumeen eta gizonen arteko despa-

rekotasunaren eta patriarkatu menderatzaile bat egotearen ondorio baita.

4. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako hurrengo Gobernuak berdintasunaren eta genero-indarkeriaren arloko legedi indardun guztia betetzea, horretarako beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleituz eta behar diren tresna guztiak taxutuz berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko, non gizonak eta emakumeak beren bizitzaren alderdi guztiak askatasunez eta berdintasunez bizi ahalko baitituzte, eta ez duten tokirik izanen gizartearen zati batek bestea mende hartzeko nagusikeriazko jarrerak.

6. Nafarroako Parlamentuaren ustez, beharrezkoa da Nafarroako udalek, eta bereziki Iruñekoak, sanferminen kariatara, kasuko programak eta lege-tresnak indar ditzaten, sexu-eraso edo -indarkeria oro desagerrarazteko, agerikoenetik lausoeneraino.”

Iruñean, 2015eko uztailaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznarez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko ekainaren 26an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Arartekoaren kontu orokorrari buruzkoa, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko ekainaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Arartekoaren kontu orokorrari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (4. or.).
 - I.1. Arartekoaren eginkizuna eta langileria (4. or.).
 - I.2. Araubide ekonomikoa eta kontabilitatekoa (4. or.).
 - I.3. Aplikatzekoa den araudia (5. or.).
- II.** Helburua eta norainokoa (5. or.).
- III.** Iritzia (6. or.).
 - I. eranskina. Finantzen egoera-orriak (7. or.).
 - II. eranskina Arartekoaren bulegoaren aurrekontu-gastuaren bilakaera 2001-2014 epean (euro konstantetan) (11. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak Nafarroako Arartekoaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa, 2014ko ekitaldiari buruzkoa, egin du, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz. Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2015erako zeukan fiskalizazio-programan.

Azterketa-lana 2005eko apirilean egin zuten auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Arartekoaren bulegoko langileei.

I.1. ARARTEKOAREN EGINKIZUNA ETA LANGILERIA

Arartekoa Nafarroako Parlamentuaren goi mandataria da, Konstituzioak eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babestutako eskubide eta askatasunak defenditzeko eta hobeki babesteko. Haren eginkizun nagusia da herritarrak babestea administrazio publikoaren balizko abusu eta zabarkerien aurrean.

Urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoa Erreformatzekoak, 18 ter artikuluan estatutu-mailako kategoriara jasotzen du Nafarroako Arartekoa.

Nafarroako Parlamentuak hautatu eta izendatzen du, eta urtero haren aurrean erantzuten du eginda-koarengatik. Egun kargu hori betetzen duen pertsona 2007ko martxoaren 22an izendatua izan zen, sei urterako, eta jardunean jarraitzen du.

Eginkizun dituenak gauzatzeko behar dituen aholkulariak eta konfiantzazko langileak askatasunez izendatzen eta kentzen ditu kargutik.

Hurrengo taulan ikus daiteke zein zen Arartekoaren bulegoko 2014rako plantilla organikoa eta abenduaren 31ko langileen zerrenda:

Langile mota	Plantilla	Langileak, abenduaren 31n
Behin-behinekoak	5	4
Funtzionarioak	3	2
Administrazio-kontratupekoak	-	1
Guztira	8	7

I.2. ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA KONTABILITATEKOA

Arartekoa Nafarroako Parlamentuak duen araubide beraren mende dago kontabilitaterako, kontuhartzaitzarako, gastuak baimentzeko, kontrataziorako eta ondasun eta eskubideak eskuratzeko; eta kontabilitate publikoaren araubidearen pean dago orobat.

Arartekoaren aurrekontu-proiektua Nafarroako aurrekontu orokorretan sartzen da, eta haren kontuak Nafarroako kontu orokorren parte dira.

2010ean Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra onetsi ondoren, Nafarroako Arartekoak kontabilitate plan horren arabera aurkeztu zituen bere kontuak 2014. urtean.

Horrela, aurrekontuaren likidazioak, egoera-balantzeak, ekonomia- eta ondare-emaizaren kontuak eta oroitidazkiak osatzen dute kontu orokorra, bai eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orriak eta esku-diruen fluxuarenak ere.

2014ko ekitaldiko datu nabarmen gisa, honakoak aipa daitezke:

- Nafarroako aurrekontuak luzatu izanak –eta, hortaz, Arartekoarenak– eragozten du doitzea hasierako aurrekontuak Arartekoaren aurreikuspenetara, zeinak txikiagoak baitira.

- Aitortutako betebeharrak 640.688 euro egin dute, eta betetze-maila % 78koa izan da. 2013ko ekitaldiarekin alderatuz gero, betebeharrak horiek ehuneko 6 murriztu dira.
- Gastua, kapituluaren arabera, honela banatzen da: langile-gastuari % 67 dagokio, eta ondasun arrunt eta zerbitzuei % 26.
- Aitorturiko dirusarrerek 774.836 euro egin dute, eta haien betetze-maila ehuneko 94koa izan da. Jasotako diru-sarrera horietatik gehienak Nafarroako Gobernuaren transferentzietatik heldu dira. Zehazki, Nafarroako Gobernuarengandik jasotako transferentzietatik 767.900 euro egin dute; horietatik, 735.700 funtzionamendu-gastuak finantzatzera bideratu dira, eta 32.200 euro, berriz, inbertsio-gastuetara.
- 134.148 euro itzuliko zaizkio Nafarroako Gobernuaren Diruzaintzari, ekitaldiko gerakina baitira.
- Arartekoaren bulegoaren gastuak jaitsi egin dira azken urteotan; halatan, 2009an 1.032.260 eurokoak izatetik 2014an 640.688 eurokoak izatera igaro dira; alegia, ehuneko 38 jaitsi dira. Plantilla 2010ean 12 lanpostukoa izatetik 2014an 8koa izatera igaro da; alegia, ehuneko 33 murriztu da. 2. eranskinean euro konstantetan ageri da jasota gastuaren bilakaera, 2001etik hona.

I.3. APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

Arartekoari 2014an aplikatzekoa zaion araudia funtsean ondoko lege eta erregelamenduez osatuta dago:

- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea, martxoaren 7ko 3/2005 Foru Legeak eta otsailaren 21eko 3/2008 Foru Legeak aldatua.
- Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua, Nafarroako Parlamentuak 2005eko azaroaren 23an onetsia.
- Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra, apirilaren 13ko EHA/1037/2010 Aginduaren bidez onetsia.

II. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua da iritzi bat eman ahal izatea ondokoei buruz:

- Ea Arartekoaren 2014ko kontu orokorrak zehazki islatzen duen alderdirik behinenetan erakunde horren ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lortutako emaitzak, guztiok onartuak diren kontabilitateko printzipio eta arauak jarraituz prestatu ote den, eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.
- 2014an erakundeak aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino errespetatu den.

Fiskalizazioaren norainokoari dagokionez, lanaren ardatza izan da kontua osatzen duten finantzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak ote diren aztertzea, bai eta haren agiri- eta justifikazio-euskarriak ere. Beharrezkotzat jo diren hautaprobak eta prozedurak egin dira lanaren helburuei buruzko frogaharria nahikoak lortze aldera.

Metodologiari dagokionez, lana egin da Espainiako Estatuaren Kanpo Kontrolerako Organoren Koordinazio Batzordearen onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauak jarraituz, zeinak Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatu baititu.

III. IRITZIA

2014ko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren erregulartasunaren fiskalizazioa eginda, hona gure iritzia:

Gure iritziz, Nafarroako Arartekoaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak irudi zehatza erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparru aplikagarriari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate printzipio eta irizpideei jarraituz.

Orobat, 2014ko ekitaldian zehar, Nafarroako Arartekoaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari jarraituz egin da, oro har.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko ekainaren 10ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

I. ERANSKINA FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

1. 2014ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa

Gastuak, kapituluz kapitulu

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Betebehar aitortuak	Betetzearen ehunekoa
1. Langile-gastuak	503.559	0	503.559	431.777	86
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	244.600	0	244.600	166.226	68
4. Transferentzia arruntak	34.100	0	34.100	33.927	99
6. Inbertsio errealak	39.500	0	39.500	8.757	22
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	
8. Finantza-aktiboak	200	0	200	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	640.687	78

Diru-sarrerak kapituluz kapitulu

Kapitulua	Hasierako aurreikuspenak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide aitortuak	Betetzearen ehunekoa
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	100	0	100	6.541	6541
4. Transferentzia arruntak	781.150	0	781.150	735.700	94
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.009	0	1.009	395	39
7. Kapital-transferentziak	39.526	0	39.526	32.200	81
8. Finantza-aktiboak	174	0	174	0	0
9. Finantza-pasiboak	100	0	100	0	0
Guztira	822.059	0	822.059	774.836	94

Ogasun Publikoari atzera ordaindutakoa	774.836
	-640.688
Guztira	134.148

2. 2014ko aurrekontu-emaiza

Kontzeptuak	2013			2014		
	Eskubide aitortuak garbiak	Betebehar aitortuak garbiak	Aurrekontuaren emaitza	Eskubide aitortuak garbiak	Betebehar aitortuak, garbiak	Aurrekontu-emaiza
a. Eragiketa arruntak	743.051	646.516	96.535	742.636	631.931	110.705
b. Kapital-eragiketak	37.200	34.373	2.827	32.200	8.757	23.443
c. Merkataritza-eragiketak	0	0	0	0	0	0
1 Eragiketa ez-finantzarioak, guztira (a+b+c)	780.251	680.889	99.362	774.836	640.688	134.148
d. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0
e. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0
2 Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	0	0	0	0	0	0
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaiza (I=1+2)	780.251	680.889	99.362	774.836	640.688	134.148
Doikuntzak						
3. Gastaturiko kredituak, atxiki gabeko diruzaintza gerakinarekin finantzaturikoak						
4. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze negatiboak						
5. Ekitaldiko finantzaketa desbideratze positiboak						
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4-5)			0			0
Aurrekontu-emaiza doitua (I+II)			99.362			134.148

3. Diruzaintzako gerakina 2014ko abenduaren 31n.

Osagaiak	2013ko ekitaldia	2014ko ekitaldia
1. (+) Funts likidoak	141.229	175.807
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	0	0
(+) ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	0	0
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	141.229	175.807
(+) ekitaldiko aurrekontutik	11.330	14.733
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketenak	129.899	161.074
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden kontusailak	0	0
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatu gabeak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	0	0
II. Gehiegizko finantzaketa atxikia	0	0
III. Kobratzen zailak diren saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza gerakina= (I-II-III)	0	0

4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantzea

Aktiboa	2013	2014	Ondare garbia eta pasiboa	2013	2014
A) Aktibo ez-korrontea	429.842	371.532	A) Ondare garbia	429.842	371.532
I. Ibilgetu ukiezina	65.519	52.916	I. Ekarrirako ondarea	0	0
3. Aplikazio informatikoak	65.519	52.916	II. Sortutako ondarea	429.842	371.532
II. Ibilgetu materiala	364.324	318.616	1. Aurreko ekitaldietako emaitzak	429.842	371.532
2. Eraikinak	126.987	123.327	Ondarea	435.304	376.994
4 Ondare historikoko ondasunak	41.509	41.509	Lagatako ondarea	-5.462	-5.462
5. Bestelako ibilgetu materiala	195.828	153.780			
Makineria, instalazioak eta tresneria	138.918	103.706			
Alzariak eta tresnak	14.599	10.626			
Informazio-prozesuetako ekipoak	22.431	18.487			
Bestelako ibilgetu materiala	19.880	20.961			
B) Aktibo arrunta	141.229	175.807	C) Pasibo korrontea	141.229	175.807
III. Zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	IV. Hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	141.229	175.807
2. Kobratzeko dauden beste kontu batzuk	0	0	1. Kudeaketa-eragiketengatik hartzekodunak	11.330	14.733
3. Administrazio publikoak	0	0	3. Administrazio publikoak	129.899	161.074
V. Epe laburreko finantza-inbertsioak	0	0	Ogasun Publikoa, PFEZaren hartzekodun	22.431	19.068
2. Kredituak eta zorra adierazten duten beste balio batzuk	0	0	Ogasun Publikoa, eskubide pasiboan hartzekodun	1.048	550
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	141.229	175.807	Ogasun Publikoa, kreditu-itzulketa dela eta	99.362	134.149
2. Diruzaintza	141.229	175.807	Gizarte Segurantza hartzekoduna	7.057	7.307
Kutxa	917	634			
Bankuak eta kreditu-erakundeak	140.312	175.173			
Aktiboa, guztira	571.072	547.339	Ondare garbia eta pasiboa, guztira	571.072	547.339

5. 2014ko ekonomia- eta ondare-emaitzaren kontua

	2013	2014
2. Jasotako transferentziak eta diru-laguntzak	779.900	767.900
a) Ekitaldikoak	779.900	767.900
a.2) Transferentziak	779.900	767.900
Nafarroako Gobernuaren kapital-transferentziak	37.200	32.200
Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak	742.700	735.700
7. Ohiko kudeaketako beste diru-sarrerak batzuk	0	6.541
A) Kudeaketa arrunteko diru-sarrerak, guztira (1+2+3+4+5+6+7)	779.900	774.441
8. Langile-gastuak	-459.492	-431.778
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-389.291	-358.330
Arartekoaren soldatak eta lansariak	-64.543	-64.543
Aldi baterako langileen soldatak eta lansariak	-227.693	-194.397
Funtzionarioen soldatak eta lansariak	-68.336	-71.074
Kontratupeko langileen soldatak eta lansariak	-28.719	-28.316
b) Gizarte-zamak	-70.200	-73.448
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantza	-70.200	-73.448
9. Egindako transferentziak eta emandako diru-laguntzak	-33.379	-33.927
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-153.645	-166.226
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-153.645	-166.226
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-66.706	-66.931
B). Kudeaketa arrunteko gastuak, guztira (8+9+10+11+12)	-713.222	-698.862
I. KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (A+B)	66.678	75.580
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta salgai dauden aktiboen eta balio-galera besterentzearen emaitzak	-132.981	-137
a) Balio-galera	-132.846	0
b). Bajak eta besterentzeak	-135	-137
II. ERAGIKETA EZ-FINANTZARIOEN EMAITZA (I+13+14)	-66.303	75.443
15. Diru-sarrera finantzarioak	351	395
b). Balio negoziagarri batzuen eta aktibo ibilgetuko kredituenak	351	395
b.2) Bestelakoak	351	395
III. ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZA (15+16+17+18+19+20)	351	395
IV. EKITALDIKO EMAITZA GARBIA (AURREZKIA EDO DESAURREZKIA) (II+III)	-65.952	75.838

II. ERANSKINA ARARTEKOAREN BULEGOAREN AURREKONTU-GASTUAREN BILAKAERA 2001-2014 EPEAN (EURO KONSTANTETAN)

Gastuak	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Langileak	236.908	403.880	548.261	632.004	627.342	660.283	610.344	647.548	651.014	671.026	648.003	475.375	453.978	431.777
Ondasun arruntak	131.255	296.162	264.489	372.830	270.294	401.084	369.286	313.651	313.706	285.450	238.229	161.952	151.801	166.226
Finantzaritxoak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Transf. arruntak	2.172	27.605	24.995	32.802	24.404	23.665	25.981	36.785	37.903	38.630	35.598	32.167	32.978	33.927
Inbertsioak	79.516	52.578	108.248	54.015	39.642	70.035	80.359	64.274	106.025	22.353	49.199	39.881	33.961	8.757
Kapital transferentziak	-	-	-	-	-	143.399	210.177	-	-	-	-	-	-	-
Aktiboak	-	-	4.872	4.213	-	-	-	-	-	4.474	-	-	-	-
Pasiboak	-	-	-	1.040	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	449.851	780.224	950.865	1.096.904	961.682	1.298.465	1.296.146	1.062.258	1.108.647	1.021.933	971.028	709.376	672.718	640.687

